| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2009/06/17<br>**Fecha**: 17/06/2009 | **Ordua**: 19:00 – 20:45<br>**Hora**: 19:00 – 20:45 | **Lekua**: Errota Kultur Etxea<br>**Lugar**: Errota Kultur Etxea |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes:**

***Udala/ Ayuntamiento:***

- Jose Luis Navarro (Alkatea / Alcalde)
- Marian Larrauri, Matias Sendino (Zinegotziak/Concejales)

***Gizartea/Sociedad:***

5 herritar / 5 ciudadanos/as

***Aholkularitza /Consultora:***

- Juan Mª Lersundi , Ainhoa Ugalde (BITAKA)

| 1. Saludos y agradecimientos | 1. Aurkezpena eta esker onak |
|---|---|
| Se da la bienvenida y agradece a todas las personas asistentes por su participación, subrayando la importancia de su colaboración en este Foro de presentación de las Propuestas de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br><br>Coincidiendo con las diferentes fases de redacción del mencionado plan, se ha entendido preciso convocar este segundo foro de participación ciudadana para debatir las propuestas y para que puedan ser sometidas a un contraste con las opiniones y la visión de la ciudadanía en general. Una vez terminado el proceso de participación, las aportaciones se tendrán en cuenta en el Plan de Acción. | Ongietorria eman zaie bertaratuei eta aldi berean eskerrak eman zaizkie euren parte-hartzeagaitik. Aldi berean euren laguntzaren garrantzia nabarmendu da Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren planaren ekintzen proposamenak aurkeztu diren foro honetan.<br><br>Plan horren faseak aurrerantza doazen heinean, bere edukiak aztertzeko, herritarrengana jo da bigarren foro hau antolatuz. Denen artean ekintzen proposamenen inguruan eztabaida burutzea da bigarren foro honen helburua.<br>Partaidetza prozesua bukatu ostean, jasotako ekarpen guztiak Ekintza Planerako kontuan hartuko dira. |
| **2. Presentación del borrador de Propuestas de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado** | **2. Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren Diagnosiaren aurkezpena** |
| Los técnicos de Bitaka realizan la presentación del borrador de Propuesta de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado mediante la ayuda de una presentación por ordenador.<br>En dicha presentación entre otras cuestiones se exponen los siguientes contenidos: las conclusiones principales extraídas del diagnóstico, las proyecciones de futuro en materia de movilidad, los objetivos que se han tenido en cuenta a la hora de definir el borrador de actuaciones y las | Bitakako teknikariek Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Ekintzen Proposamenak zeintzuk diren azaldu dute, ordenagailu bidez proiektatutako aurkezpen bat lagun.<br><br>Aurkezpenaren edukiak, besteak beste, honako hauek dira: diagnosiaren ondorio nagusiak, etorkizunera begira mugikortasunaren inguruan dauden plangintzak, ekintzen proposamenen zirriborroa egituratzekoan kontutan izan diren helburuak eta Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planak |

| | |
|---|---|
| propuestas de actuaciones concretas, en fase de borrador, del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br>Así mismo, durante toda la exposición se subraya que las propuestas se recogen en un documento provisional, que se espera que sea completado con las aportaciones realizadas por la ciudadanía en los foros de participación ciudadana en los municipios del ámbito de estudio. | izango dituen ekintzen proposamen zehatzak, zirriborro eran.<br><br>Argi utzi nahi izan dute aurkeztu den dokumentua zirriborro bat dela, behin-behineko dokumentua beraz. Ekintza proposamenen behin betiko bertsioa herritarren ekarpenekin osatua izango da. Horretarako azterketaren eremuko herri guztietan partaidetza foroak burutuko dira. |
| **3. Ruegos y preguntas** | **3. Galde - eskeak** |
| Tras la presentación se abre un tiempo para los ruegos y preguntas que hayan podido surgir tras la exposición de las Propuestas de Actuaciones.<br>- Se requiere una aclaración sobre el plano de saturación mostrado una vez que se hayan construído los viales previstos. En principio, según la persona que plantea la pregunta, el corredor Durango-Beasain debería evitar la saturación, cosa que no se refleja en el plano. Desde Bitaka se aduce a la demanda latente de ese vial y a que según las estimaciones realizadas en el estudio, se prevén 71.000 desplazamientos más, asociados a los desarrollos tanto urbanísticos como de actividades económicas previstos. Es por ello que se llega a la conclusión de que la construcción de estos nuevos viales no evitará la saturación si no se cambia de modos de movilidad. La persona que ha requerido la aclaración, por último, afirma que aun así hay que poner los recursos necesarios. | Aurkezpenaren ondoren, Ekintza Proposamenen aurkezpenaren inguruan sortutako gadera-eskeei erantzuteko denbora tarte bat ematen da:<br>- Aurreikusita dauden errepideak eraikitzen direnean, aurkituko dugun asetze-planuaren inguruko azalpen bat eskatzen da. Nahiz eta asetze-planuan horrela agertu ez, galdera egiten duen pertsonaren arabera, printzipioz Durango-Beasain Korredoreak asetze arazo hoiek saihestuko ditu. Bitakaren aldetik, errepidearen eskari latente bat badela esaten da eta gainera, ikerketaren kalkuluen arabera, etorkizuneko hiri-garapen eta jarduera ekonomikoen ondorioz, 71.000 joan-etorri gehiago aurreikusten da. Horrexegatik, ondorio honetara heltzen da: mugitzeko moduak aldatzen ez baditugu, aurreikusita dauden errepideak eraikitzeak ez duela asetze arazoa saihestuko. Azkenik, azalpena eskatu duen pertsonak, etorkizunean beharrezkoak izango diren baliabideak ezarri behar direla baieztatzen du. |
| **4. Debate sobre la presentación** | **4. Aurkezpenari buruzko eztabaida** |
| A continuación se exponen los temas tratados en el debate sobre la presentación de la Propuesta de Actuaciones:<br>▪ **Transporte público:**<br>- Se comenta que lo primordial es proporcionar al transporte público de los medios necesarios para que el transporte público sea competitivo respecto al vehículo privado. Pone como ejemplo que una persona que viva en Traña-Matiena y que quiera hacer un recado que le requerirá 10 minutos en Durango, no estará dispuesta a tener que esperar al autobús e irá directamente en vehículo privado, porque esa espera no le compensa en cuanto a tiempo y dinero. Y si | Jarraian Ekintzen Proposamenen aurkezpenari buruzko eztabaidan azaleratutako gaiak eta ekarpenak azaltzen dira:<br>▪ **Garraio Publikoa:**<br>- Garraio publikoa ibilgailu pribatuarekiko lehiakorra izateko, garraio publikoa baliabide nahikoz hornitzea da garrantzitsuena.<br>Adibide moduan hurrengoa planteatzen da: Traña-Matienan bizi den eta 10 minutu iraungo duen enkargu bat egiten Durangora joango den pertsona bat, ez da autobusa itxaroteko prest egongo eta, diruaren eta denboraren aldetik ez duelako konpentsatuko, zuzenean autoz joango da. Gainera, pertsona horrek Durangora bizikletaz joatea erabakitzen badu, helmugan ez du bizikleta |

esta persona quisiera ir en bicicleta a Durango, no dispone de lugares donde se encuentren aparcabicis para dejar su vehículo. Por lo tanto, concluye, es imprescindible dotar de medios a todo lo que se refiere al transporte público.

- Un ciudadano pregunta cuál es la frecuencia de autobuses de que dispone el municipio. Se constata una falta de información al respecto, siendo Abadiño (sobre todo Traña-Matiena) el segundo municipio mejor comunicado por este medio en el Duranguesado, después de Durango.
- Esta falta de información se debe, según las personas presentes, a la falta de costumbre y a lo caro que está el transporte público. Se comenta que, además, lamentablemente, la mayoría de los/las usuarios/as del transporte público son las personas de menor nivel adquisitivo, agravándose el problema de la carestía de los trayectos.
- En cuanto a tarifas, se opina que para un recorrido de 3kms. (Traña-Matiena – Durango), el precio es excesivo.
- Interesaría, según la ciudadanía presente, que existiera un transporte interurbano en la Comarca, por lo que se pregunta sobre su viabilidad. Desde Bitaka, se explica que es un tema complejo que hay que analizar con detenimiento y que el nuevo estudio de reorganización de Bizkaibus puede dar pie a que se intenten introducir las propuestas de actuación para la Comarca mencionadas. No obstante, se es consciente de la dificultad de esta reorganización, que se debe a las concesiones de las líneas de las diferentes compañías que conforman Bizkaibus.
- En cuanto a este asunto, debería realizarse un estudio más concreto, que analizara las demandas potenciales para posteriormente configurar las líneas necesarias, y establecer una tarifa competitiva.

▪ **Ejes cívicos:**

- Una de las personas asistentes pregunta si estos ejes tendrían iluminación. Se responde que la iluminación es un recurso indispensable en estas infraestructuras, para que puedan utilizarse a cualquier hora del día y para preservar la seguridad de sus usuarios/as.
- En cuanto a la rotonda de Eroski, un participante apunta que se tenga en cuenta la posibilidad de solventar este punto crítico con pasarelas elevadas, al igual que ha visto en ciertas zonas del Mediterráneo. Ve más segura esta

aparkatzeko tokirik izango. Beraz, garraio publikoa baliabide guztiekin hornitzea beharrezkoa da.

- Herritar batek, udalerrian dauden autobusen maiztasuna zein den galdetzen du. Honen inguruan, informazio falta dagoela azpimarratzen da. Hala ere, Durangaldean, Durango ostean, hobeto komunikatua dagoen bigarren herria Abadiño (Traña-Matiena batez ere) da.

- Bertaraturiko pertsonen arabera, informazio falta hau, ohitura faltaren ondorioz eta garraio publikoa hain garestia izatearen ondorioz da. Gainera, tamalez, garraio publikoaren erabiltzaileak erosteko ahalmen gutxiagoko pertsonak izaten direla esaten da. Beraz, ibilbideen garestitasuna kontutan hartuz arazoa larriagotzen da.

- Salneurrien inguruan, Traña-Matiena – Durango ibilbidearen prezioa, 3 km-tako ibilbidea, garestiegia dela uste da.

- Bertaratutakoen arabera, eskualde mailan herri-arteko garraioa ezartzea komenigarria izango litzateke eta horrexegatik, ekintza hau aurrera eramateko bideragarritasunaren inguruan galdetzen dute. Bitakakoek sakonki aztertu beharko litzatekeen gai bat dela azaldu dute eta beharbada Bizkaibusek egindako berrantolaketaren azterketan barneratutako gai bat izan daitekeela aipatzen dute. Hala ere, Bizkaibus osatzen duten konpainien kontsezioen ondorioz, berrantolaketa honek zailtasun nabarmenak izan ditzakeela ere aipatzen da.

- Auzi honi dagokionez, azterketa zehatzago bat egin beharko litzateke, eskari potentzialak aztertu eta gero beharrezkoak lirateken lineak ezartzeko. Salneurri lehiakorrak behar lituzke izan gainera.

▪ **Hiri-ardatzak**

- Parte-hartzaile batek hiri-ardatz hauek argiztapena izango ote duten galdetu du. Behar bezalako argiztapena mota honetako azpiegituretan ezinbestekoa dela erantzun zaio. Horrela eguneko edozein ordutan izan daitezke erabiliak, eta erabiltzaileen segurtasuna ere bermatzen da hein batean.

- Eroskiko biribilgunea da jarraian hizpide. Bertaratutako batek errepidearen gainetik pasagune bat jartzearen ideia plazaratu du, Mediterraneo aldean berak ikusi omen du horrelako egituraren bat. Biribilgune horretan semaforoak ezartzea baino neurri seguruagoa da beraren ustetan, bide-segurtasun ikuspegitik.

opción que la de instalar semáforos en esta rotonda, ya que la seguridad vial se preservaría mejor.
- Se comenta la idea de que se pueda utilizar el camino que hoy día recorre el tren una vez que se materialice el soterramiento, como posible vía de unión de Traña-Matiena con Durango, como ejemplo se ha mencionado el antigüo ferrocarril de Estella reconvertido actualmente en vía verde.
- Un participante afirma que el ciclismo urbano necesita de sistemas anti-robos, que de hecho recientemente a sufrido un robo de una bicicleta.

- **Movilidad al trabajo:**

- Comentan lo absurdo de la situación en cierta empresa en cuanto al transporte colectivo, donde hay trabajadores/as que por derecho adquirido en su momento (ante el traslado de la fábrica a otro municipio) disponen de este transporte, pero sin embargo trabajadores/as del mismo municipio que no tienen ese derecho adquirido no tengan este servicio.
- El coche compartido es una solución a promocionar, que depende básicamente de un cambio de mentalización. La rebaja por ocupación del coche en el peaje de la autopista sería una buena política tarifaria de fomento de esta práctica.

- **Proyecto de unión de centros urbanos de Abadiño:**

- El tema de los ejes cívicos da lugar a una pregunta que más tarde abre un pequeño debate. Uno de los participantes menciona que sería importante unir los núcleos urbanos de Muntsaratz, Zelaieta y Traña-Matiena por medio de caminos peatonales y ciclables. Al respecto, los/las concejales presentes aclaran que esta unión está prevista y que en breve se adjudicará la licitación de las obras. Sin embargo, se plantea una crítica respecto a la unión de Muntsaratz con Zelaieta mediante el puente: varias personas ven contraproducente que esta unión contemple la posibilidad de realizar este trayecto en vehículo privado. Se opina que Zelaieta no está preparada en cuanto a aceras (seguridad peatonal) para acoger a los vehículos que vengan de Muntsaratz, y que esta posibilidad de poder acceder en coche a Zelaieta animará a numerosos padres y madres a trasladar a sus niños/as en vehículo privado, cosa que hoy día no hacen. Las personas asistentes preferirían que esta conexión entre Muntsaratz y

seguruagoa da beraren ustetan, bide-segurtasun ikuspegitik.

- Beste pertsona baten esanetan, trena lurperatzen denean gaur egun trenbideak daukan ibilbidea aprobetxa daiteke Traña-Matiena Durangorekin hiri-ardatz bidez lotzeko. Lizarrako antzinako trenbidea jarri da adibidetzat, gaur egun horrelako azpiegitura bilakatu dute, antza.
- Azkenik, partaide baten ustetan, hiri-txirrindularitzak beharrezkoa duen azpiegitura bat nabarmendu du; lapurketen aurkako sistemak. Izan ere, pertsona honi duela gutxi bizikleta lapurtu zioten.

- **Lanerako mugikortasuna:**

- Abadiñon den enpresa baten egoera absurdua aipatu da: iraganean langileek enpresa tokiz aldatu zela eta garraio kolektiboaren eskubidea lortu zuten eta gaur egun ere badute zerbitzu hori. Aldiz, beranduago kontratatu ziren langileek, nahiz eta herri berdinean bizi, ez dute garraio kolektibo hori erabiltzeko eskubiderik.
- Auto partekatua sustatu beharreko neurria da, eta ezinbestekoa da horretarako pentsamolde edo mentalitate aldaketa bat ematea. Autopista auto okupatuagoek merkeago izatea sustapen neurri ontzat ematen da.

- **Abadiñoko herriguneak lotzeko proiektua:**

- Hiri-ardatzen gaiak beste gai bat azaleratu du, eztabaida txiki bat sortuz. Parte-hartzaile baten esanetan garrantzitsua litzateke Muntsaratz, Zelaieta eta Traña-Matiena hiri-ardatz baten bidez elkartzea, bai oinez eta bai bizikletaz herrigune hauetara joan ahal izateko. Gai honi dagokionez, bertan dauden zinegotzien esanetan, badago aipatutako lotura hau gauzatzeko asmoa, eta lasterrera lotura hau egiteko lizitazioaren esleipena egingo da. Baina, zinegotzi hauen ustetan, Muntsaratz eta Zelaietarako proposatzen den lotura (zubitik) ez da egokia: Proiektu honek lotura hau autoz ere egitea ahalbidetzen du eta hau kaltegarria delakotan daude. Zelaietan proiektatutako lotura ez omen dago bertatik Muntsaratzetik datozen autoak pasatzeko prestatua (ez dago espaloirik eta oinezkoak arriskuan ipin daitezke). Gainera, beraien ustetan, umeak eskolara eramateko bide hau erabiliko da, gurasoak autoz eramango dituzte garu egun ez bezala, arazo bat sortuz. Bertaratutakoen ustetan egokiagoa litzateke autoak errepide nagusitik ibiltzea, eta Muntsaratz eta Zelaieta arteko lotura oinezko eta bizikletentzako izan beharko litzateke bakarrik.

| | |
|---|---|
| Zelaieta fuera unicamente peatonal y ciclable.<br><br>▪ **Implicación institucional:**<br>- Una de las personas asistentes lanza una pregunta sobre los plazos de ejecución de las propuestas de actuaciones. Se le responde que primeramente habrá que realizar un trabajo en el que tendrán que participar todos los Ayuntamientos para determinar prioridades y más tarde, según presupuestos y vías de financiación se establecerán los plazos de ejecución.<br>- Se comenta que, entonces, la implicación y la interrelación entre Ayuntamientos es vital para la consecución del cambio en la movilidad del Duranguesado.<br>- En este sentido, se anima a la consultoría a intentar que se consiga que se lleven a cabo cuantas más actuaciones posibles. | ▪ **Erakundeen inplikazioa:**<br>- Parte-hartzaile batek luzatu diren ekintza proposamenak zein epetan burutuko diren galdetu du. Epeak oraindik ezarri gabe daudela erantzun da, epeak ezarri aurreko lana badago oraindik egiteko. Udal guztien arteko elkarlana egin beharko da aurretik, lehentasunak ezarri, eta gerora, aurrekontuak eta finantziazio-bideak argi direnean jarriko dira epe zehatzak.<br><br>- Beraz, Udalen arteko elkarlana eta inplikazioa behar-beharrezkoak izango dira Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren plana bideratzeko.<br><br>- Auzi honi dagokionez, bertaratutako parte-hartzaile batek aholkularitza animatu du, ahalik eta ekimen gehien bideratzea lortzeko. |
| **4. Agradecimientos y despedida** | **4. Agurra eta hurrengo pausuen azalpena** |
| Una vez finalizado el diálogo entre ciudadanía, se expone que se levantará el acta de la reunión mantenida, posteriormente se enviará al Ayuntamiento por último se pondrá a disposición de toda la ciudadanía.<br><br>Por último, se agradece a todas las personas su presencia y participación en este Foro. | Herritarrekin elkarrizketa bukatu ostean, burututako batzarraren akta egingo dela azaldu da. Udalera onartzeko bidali eta onartuta denean herritarrei zabaldua izango da akta hau.<br><br>Azkenik, bertaratuei foro honetan izan duten parte-hartzea eskertu zaie. |